BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

5318

EBAZPENA, 2015eko abenduaren 14koa, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariarena, beherago zehazten den establezimenduaren Kanpoko Larrialdi Plana jendaurrean jartzeko dena: Compañía Logística de Hidrocarburos, Zierbenako instalazioa (Bilboko Portu Autonomoan kokatua).

Istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartu zituen uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuaren 11. artikuluan eta haren moldaketetan –119/2005 Errege Dekretua eta 948/2005 Errege Dekretua– ezarritakoa eta istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten Autonomia Erkidegoko organoak zeintzuk diren zehaztu zuen otsailaren 20ko 34/2001 Dekretuaren 3. artikuluko f) eta k) idatzi-zatietan ezarritakoa betetzeko, gai arriskutsuak dituzten enpresen Kanpoko Larrialdi Planak jendaurrean jarri behar dira, baldin eta gai arriskutsu horien kantitatea 1254/1999 Errege Dekretuaren eta haren moldaketen –119/2005 Errege Dekretua eta 948/2005 Errege Dekretua– I. eranskineko 1. eta 2. zatiko 3. zutabean zehaztutakoa edo handiagoa bada.

Industrialariak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren bidez bidali dituen agiriei erantzunez, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, beste erakunde eta administrazio-zerbitzu batzuekin batera, enpresa honen Kanpoko Larrialdi Plana egin du: Compañía Logística de Hidrocarburos, Zierbenako instalazioa (Bilboko Portu Autonomoan kokatua). Plan hori jendaurrean jarri behar da 20 egun baliodunez.

Horregatik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Compañía Logística de Hidrocarburos, Zierbenako instalazioa (Bilboko Portu Autonomoan kokatua) enpresaren Kanpoko Larrialdi Plana jendaurrean jartzea, beharrezko jotzen diren alegazioak aurkez daitezen. Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera 20 egun baliodunez egongo da jendaurrean plana.

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa bete ahal izan dadin, Kanpoko Larrialdi Plana Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (La Torre eraikina, Forondako Atea 41, Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.– Alegazioak aipatutako epe horren barruan bideratu beharko dira Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzara (La Torre eraikina, Forondako atea 41, 01010 Vitoria-Gasteiz); sail horretako erregistro orokorrean aurkeztuko dira, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako moduetako edozein erabili ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 14a.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria,
PEDRO ANITUA ALDEKOA.